

TXAPELAREN ITZALA

Txapel preziatu bakarrak piztu ohi duen irrikaren eraginpean bizi izango ziren zenbait bertsolari 1989.eko azken bi hilabeteetan. Txapelaren amets gaitz, gozo eta mina gau eta egun zirika, irrika; askoren nahiaren dina, baina zenbaitentzat eskuraezina. Dena dela bertsolari on guztiek, punta-puntakoei orpoz orpo zerraizkie-la su eta gar aritu behar belodromoko hautatuen artean izateko.

Bertsoaren lilurak eta txapelketaren lehiak gori-gori eta borbor jarri zuten giroa. Gure kulturaren herri-adierazpenik gorenak erakarririk, bertsolarien inguru-minguru bildu izan da euskaldun-goaren zati handi bat eta txapelketaren azkenaldian bereziki, bertsoaren doinuzko isuri gozoak ase du haietariko bakoitzaren izpiritua.

Entzulegoaren prestutasuna

Azken urteotan maiz aipatu izan dena da hau, baina bertsolaritzak iragan urrunean sustraia izanik, egungo kulturari oparo fruitu emanez dirau. Enbor urtetsuak kimu berri guri eta emankor-
rak dakartzala esan nahi nuke. Menditik jauzika datorren ibai baten antzera beti isurtzen eta inoiz ez agortzen. Hortaz, bertsolaritza lehengoa eta gaurkoa den heinean, entzulegoa ere halaxe da. Garai zaharretako argazkiak begiratu, azoka, herri-kirol, apostu eta horrelakoetan izan ohi den antzeko entzulegoa ikus daiteke.

hots, gehienbat baserritarra, adinekoa eta gizonezko hutsez osatua. Orain, txartel bila leihatilerantz hurbiltzen den oldeari gainbegirada bat egitea aski da hor gertatu den aldaketaz ohartzeko: gazteria nagusiki (neska eta mutil), haurrak edo gaztetxoak ere bai tarteka, garerdikoak ugari eta zaharrak gutxiago; agian irratiz edo... Zorrozkiago aztertuz, gehiengoa kaletarra, kulturaz jantzia, bertsotan aditua eta modernoa dela esan behar. Bertsolariaren eta entzulearen arteko batasun estua beti azpimarratu izan da. Entzuleak, bertsolariak puntuz puntu bertsoa taiutu ahala, bere baitan taiutu, gozatu eta bere hizkuntza-arau nahiz estetika-senaren bahetik pasatzen du. Entzuleen artean bertsolariak, erdi bertsolariak, bertsojartzaileak ugari izan ohi dira eta horretaraino heltzen ez direnak ere bertso ona eta erdipurdikoa bereizteko gai izan ohi dira eskuarki. Askok, epaile-mahaian eseri ez arren, saioaren xehetasunak hobeki jasotzearen edo eta lehiaren barnean errazago sartzearren, epaile-lanetan aritzen ziren paper eta boli-grafoz, oharrak idatziz eta puntuak jarritz. Batzuk oinak idazten zituzten soilik. Beste askoren gogoa bertsoak lasai eta burua nekatu gabe entzunez une gozoa igarotzea. Bertsoaren lilura dastatzeko edo eta jolas horretan barneratzeko hakoitzak bere erak ditu. Bertsolaritza eta entzulegoa goi-goian daude gaur.

Gipuzkoaren pisua

Historian zehar, beste herrialdeetan ere noizbehinka Urretxindorra, Etxahun, Xalbador... bezalako izarrak agertu izan diren arren, probintzia, hots, Gipuzkoa izan da bertsolaritzaaren ingurunerik emankorrena. Gaur egun ere hala dela dirudi. Xalbador zenak, 1967.ean Anoetan entzundako txistu hotsak bihotza zaxtatu bazioten ere, eskerrona adierazten zion Gipuzkoari bere bertsolari-senaren zuzpertzeari zor ziola aitortuz:

«Zabalik ene dohain guzien atea,
zuretzat esker onez bihotza betea,
kantari natorkizu, Gipuzko maitea,
loreztatu baituzu ene izaitea».

Eta beheraxeago honelaxe diote 7. bertsoaren azken bi puntuek:

«Abots hau galduko zen mendi basoetan,
hartu ez baninduzu zure besoetan».

Gipuzkoan bertsoa etxe-etxeke izan dela esan genezake eta joera hori oso nabaria eta bere-berea du. Ohitura zaharren arabera koplaz egin ohi ziren Santa Ageda eskeak eta abar ere, Gipuzkoako herri askotan, bertsoz egin ohi dira. Gaur egun bertsolaritzak izan duen gorakada lortzeko abiada ere hor hasi zelakoan nago.

Hala ere, ene eritziz, probintzian bada beste herrialdeetan baino apostu giro finkoagorik eta horrek bertsolaritza ere kutsatu egin ohi du, abertzaletasun garbiaren kaltetan. Txapelketak berez dakarren norgehiagoka edo elkarren lehiari aritzea areagotu egin, ohi du giro horrek, aurrez aurre edo bekoz beko bertsolariak eta herrialdeak ere jarritz. Hortik erresumin, azpijoko eta trikimailue-





tara ez dago urrats txiki bat baikik. Horrek arazo larriak eta gorabehera latzak sortu izan ditu azken txapelketa nagusiaren antolaketa garaian. Baina gaitza ez ote zetorren aurreko txapelketatik? Orduko zauriren batzu oraindik guztiz itxi gabe egon zitezkeen... Artaldean ardi beltz bat begiz jo eta hari errua egoztea, zama harengan hustea da errazena. Baina ziur hor ez dagoena kakoa. Abertzale-ikuspegirikeza, txokokeria, probintzikeria izan daiteke azpian dagoen gaitza. Behin horra helduz gero, guztia

hankaz gora joateko arriskuan gara, gehiengoaren legea ezartzen bait da. Gehiengoa Gipuzkoak du eta honen aldeko isuria hasi orduko har zezakeen txapelketak, antolaketa-fasetik bertatik. Txapelketa ekintza gaitza, latza izan ohi da bertsolarientzat. Horregatik, bertsozalearen gozamenerako eta kulturaren onerako delakoan bere burua eskaintzen duenak, lehiaketa edo joko garbi batetan ari den ziurtasuna behar du.

Txapel preziatua jazteko aukera duen bertsolaria ez doa, huts edo bete, badaezpadako lehiaketa batetara. Antolaketa eta epaimahaikoci dagokienez, jokaera garbia eta alderdikieririk gabea ezinbestekoak dira; horrela egin ezik, bertsotan irabazitakoa mahai horietan gal bait daiteke. Joko gardena, inolako atxakiarik gabea, susmorik sortarazten ez duena izan behar du.



Estilo ezberdinak

Aintzinako bertsolarien artean eskolatuen eta eskolabeen arteko bereizketa egin ohi zen. Oraingoan artean, gutxi-asko, guztiak dira eskolatuak; batzu goi mailako ikasketak eginak, idazleak, kazetariak etabar. Aurreko txapelketa amaitu zenean, egunkari, aldizkari eta irratietan bi joera ezberdin nabari ziren azaltzaileek ziotenez: bata eskola berrikoa eta bestea zaharrekoa. Eskola berrikoen aitzindari X. Amuritza jartzen zuten eta eskola zaharrekoen eredu S. Lizaso. Honek txapela jaztea, bertsolaritzak ibilera galdu batzu hor zehar egin ondoren, bere betiko ildo jatorrera itzultzea bezala hartu zuten batzuk. Lizasok orduan txapela jaso bazuen, epai-mahaikoan eritzi bertsotan besteek baino hobeki egin zuelako izango zen eta ez dut uste geroko komunikabideen hitz-jario eta gogoeta hutsalik beharko zuenik txapela justifikatzeko. Eskola horien guna zertan zetzan galdeturik, inork ez zuen ganorazko erantzunik ematen. Nik entzundakotik eta neuretik honako zirriborro honetan jarriko nuke bereizketa:

a) Eskola zaharrekoak: bat-batekotasuna (bertsoa azkar moldatu eta kantatu), umore ona, grazia, ziriia, azken puntuaren erematea, ustegabeko ateraldiak, herri-euskara landu gabea, laburduraz eta tokian tokiko fonetismoz kutsatua.


b) Eskola berrikoak: teknikaren nagusitasuna (bertsoa asmatzeko denbora luzeagoa), umorerik ez, bertso sakon eta trinkoak, goitik behera ehoak, azken puntuko erremate eta ateraldirik gabeak. Euskara landua, idatzitakoaren antz-antzekoa, laburdurarik eta tokian tokiko fonetismorik gabea...

Baina ohartuko zarenez, irakurle, bereizketa hau zirrimarra hutsa da, karikatura bat. Jar dezagun X. Amuritza bera argudioaren ardatz. Zertan datza Xabierren berritasun hori? Bai, azken urteotan bertsolaritzara ekarpenik handienak egin dituen bera dela esango nuke: doinuak, hiztegi errimatua, bertso-neurri zaharrak berreskuratu eta berriak plazaratu, teknika txukuna, euskararen bat-bateko artista, une bakoitzeko egoeraren arabera, euskara batua nahiz bizkaiera maisuki erabiltzen dakiena. Baina Xabierrek, bertsolari bikain guztiek bezala, bere-bereak dituen bereizgarri

horietaz gainera, bat-batekotasuna, grazia, umorea eta abar ere baditu. Beraz, eskola zaharra eta berria aipatzean, bertsolarien artean somatzen diren joera ezberdinak azpimarratu nahi dira; baina goi-mailakoak eskola zaharreko nahiz berriko bereizgarriak hoberenen jabe izan ohi dira eskuarki. Hau, ez da oraingoa soilik, lehenago ere hafa zela dirudi. Uztapide eskolagabe eta lege zaharrekotzat azaltzen zitzaigun; Basarri, berriz, eskolatu eta lege berrikotzat...

Azken txapelketara etorritik, Mañukortak, Lertxundik, Zendoiak, Otamendik, Lazkanok... eskola zaharrean izango lukete tokia. Finaleko gainerako guztiak, Lizaso barne, sintesi orekatu bat lortuz, Amuritzaren bertsogintza txukun, landu eta goi mailakorantz abiatu direla dirudi. Betiko bertsogintza gaurkotuaren eredurik bikainena, ene eritziz, Jon Lopategi txapelduna izan daiteke.

Bakoitzaren bereizgarriak aipatzen hasiz gero, gogoan izatekoak dira honako hauek ere: Egañak literatura idatziari bertsolaritzaren ukitua itsasten jakin duenez, bat-bateko bertsogintzari ere handik zerbait ematen diola esan genezake, bi arloetan egoki aritzen bait da.



Eguzkitzeren estiloa gauza eder, gozo, adierazgaitza gertatzen zait. Egañak bezala honek ere gaiaren muina xehetasunez jutzen eta apaintzen daki. Gaiari ederki heltzen dio, euskararen erabileran eta neurrian bere maisutasuna azalduz. Huts egiteko beldurrik gabe, erraz ari denaren zentzazio harrigarria ematen du.

Jon Enbeita berezia dugu. Bertsolari-olerkaria eta kantari bikaina. Honen ahotan bertsoak, zenbait unetan, gailurra jotzen du. Berriatuko Arregi bertsola-



riak, Markinan izandako bertso jaialdi batetatik irteeran, honako hau zioen: Xalbador zenaren antzera, bat-batean olerkiaren dotoretasun txairoa lortzeko gai den bertsolaririk badela eta Jon Enbeitaren izena aipatzen zuen.

Epai-mahaiaren hitza eta kazetarien esamesak

Haiek zuten azken hitza eta eman zuten epaia: Jon Lopategi txapeldun, Sebastian Lizaso bigarren. Gero zurrumuruak, txaloak, txistuak, berriketak... **Deia** egunkariko kazetariak lotsagabeki salatu du epai-mahaia. Bere hitzetan lokazturik, itsumustuan ari dela dirudi... Txapela ongi dagoela dagoen buruan dio, baina segidan epai-mahaia salatzen du. Eta besterik gabe, haiengan gaitzespena utzi eta kale...! Zertan gara? Txapela dagoen buruan ongi dago ala ez dago? Epaile bizkaitarrek etxerantz jo ote duten susmoa antzeman daiteke kazetari honen hitz nahasietan.

Egia da «Beltzaren» bertsogintza zoragarri eta ustelik gabecoren lilura somatzen dela epaile bizkaitarren: baina ez bizkaitar-
gan soilik, Bizkaian bizi arren gipuzkoarra den Trinok eta Iparral-
deko Mixel Itzainak ere hura jarri bait dute goren; J. M. Etxezar-
tari ere, geroko batuketek besterik agertu arren, Muxikako bertso-
laria gertatu omen zitzaion gogokoena.

Lekuz kanpikorik ezer izatekotan, postuei dagokionez epai
berbera eman zuten bi epailek, Lopategi laugarren eta Enbeita
zazpigarren jartzea...

Komunikabiderik gehienak bat datoz Eguzkitzeren lana go-
raipatzean. Gazte honek bertsotarako duen ezipal fina ukazina
da, baina zenbaitek berau txapeldun atera bailitzan hitz egin dute
komunikabideetan. Honek irabazi, baina urteetan zehar eginda-
koaren ordainez «Beltzari» eman baliote bezala. Hori onartezina,
hori akabua da!

Aranalde jaunak ere egin du hitz **Deian** eta **Egunan**. Hala ere
txapeldunarekin ahaztua dirudi. Goraipamenez ase du ikasle izan
zuen Eguzkitze, gero txapeldunaren emaztea ere biziki aupatu du
eta azkenez txapeldunari txapela jarri zion Basarri jaunari eskaini
dizkio hitzik gozoenak...

Bertsotan irabazitako ohorea komunikabideetan ere ez ote da
leialki laudatu behar? Zer dela eta prentsako berritsukeria horien
bidez egiazko merezimenduei atxakiak jarri nahia?

Bi gizon historiko

Basarrik jarri zion txapela Jon Lopategiri. 1962.ean Donostia-
ko Astorian egin zen txapelketako finalean elkarren aurrez aurre
gertatzen dira bertsotan I. Eizmendi «Basarri», lehen txapelduna eta
Jon Lopategi, txapeldun berria. Oraingo ikuspegitik benetan adie-
razgarria da elkar aurkitze hau. Bertsolaritzaren sinbolo, haren
historian bi izen aipagarri.

Basarri, 21 urte zituela 1935.ean txapela eskuratu zuenetik,
goian adierazitako egunera arte, bertsolaritzaren zuzia eraman

izan duen aitzindarietarikoa dugu. Garai latzetan ere hortxe tinko iraun eta ondorengo belaunaldiari zuzia gar bizitan eskuratu diena.

Jon Lopategik, 1962.ean Astorian jokaturako txapelketa go-goangarri harez geroztik hainbat txapelketa ezagutu ditu, 1980.ekoan ezik guztietan esku hartu bait du. Beti goi-goian eta azkenengoetan txapela bai eskuratu ez eskuratu hortxe-hortxe. 1967.ean Anoetan ospatu zen final istilutsuan, hots, Xalbadorri txistuka eraso zioten hartan, Muxikako Bertsolaria hirugarren geratu zen, Uztapide eta Xalbadorren ondorik. Baina ez da hori azpimarragarriena bertsolari honen bizitzan, beste hau baizik: Frankoren diktadurapeko garairik gordinenetan, Azpillaga lagun zuela, herriz herri eta plazaz plaza abertzale-sua edo mezua eramanez bertsolari yayoa izan dugu Jon. Une bakoitzean esan beharrekoak esateko ez du egundo engararik izan; umore-tantaz saioak gozatzen ere jakin du egoera bakoitzari berea emanaz eta bere larru beltzaren kontura irri eginez. Azken urteotan, maisu titulu eta guzti, kimu berrien itzaropenez, gure baratzea zaintzen ari da Bizkaiko eskola eta ikastoletan zehar; bere-berea duen





bertso-sena gaztetxoengan ereiten eta haiek etorkizunerako trebatzen. Orain, guztia biribilago izan dadin, txapeldun ere badugu, ohorea lanaren lorea bait da.

Eritzien bahea

Olalde, Telleria, Ajuria, Elgetzu eta, agian, Jon Sarasua bera ere nik uste baino apalago aritu ziren. Telleria eta Sarasua oso gogoko bertsolariak ditut, baina bai batak eta bai besteak, tarteka bertso oso onak egin arren, motelaldiak ere izan zituzten. Albizurtarra kantari atsegina eta bertsolari entzungarria da. Gernikan Mañukortaren txisteen gorabeheran aritu zenean, saio ezin politagoa eta bizi-bizia burutu zuen. Horretan Mañukortari ere berea aitortu behar zaio, entzulegoa eta laguna umorez kutsatzeko dohain aparta bait du. Jon Sarasuak behaztopo antzeko atzera-aurrera edo zalantza txikiak izan zituen bertso ederrekin tartekaturik. Mutil honek norgehiagoka latzaren esparrutik ihes egiten duela dirudi; bere apaltasunez bertso-lehian bekoz bekoz aritzea ez duela

maite. Mañukorta oso maitagarri gertatzen zaio entzuleari. Txapelketaren larrian eta hango seriotasunean umorearen saltsa jartzen dakielako. Bertsogintzan egin dituen aurrerakadak ukaezinak dira eta oraingoan merezimendu osoz belodromoaren ate-ateraino heldu zaigu. Hurrengoan behar bada...


Belodromoko zortzi hautatuak zein baino zein hobeto aritu ziren lehenengo agurretik hasi eta txapela jantzi ondoko bertsoetara arte. Lopategi, Enbeita eta Eguzkitze ikusi nituen nik neuk mailarik gorenean. Txapeldunak goi-goian ihardun zuen egun osoan zehar, arratsaldean hain gogoberoz ikusi ez bagenuen ere. Azpimarragarria da agindutako lan mota guztietan egin zuela gora eta gora, goiz partean Everest-en gailurra joz. Bertso bete-beteak bereak, betegarri eta ustelik gabeak. Lau oinak emanda osatuta koetan ere besteengandik goranzko aldea somatzen zitzaion goizean. Ofizioetan, Eguzkitze eta Egañarekin batera «Beltza» nabarmendu zen, gaiari hertsiki lotuz eta bertso ezin hobeak taiutuz. Senargaiak bertan behera utzitako alabaren sentimendua eta sendagaitz zitzaion zauria hobeki adierazterik ba al dago? Beste horrenbeste esan dezakegu aitaren aurrean agertu zuen drogaren mende eroritako gaztearen atxekimendua, gozamina, larridura, zorigaitza eta irteerarik eza. Gartzelan zuen lagun lapurrari egin zion bisitan ere egoki aritu zen; bi lapurrak ez dira elkarrekin konpontzen eta borondaterik onenaz, opari eta guzti, haraino heldu eta lagunaren eskertxarra ikusiz, bertan ustel dadila esanez alde egiten du... Gartzelako gaien txapeldunak motelaldia izan zuela ziotenek irakur bitzate patxadaz, belodromoko txalo hotsa isildurik, hiru bertsook. Ez, ez dira bertso distiratsu antologiko horietakoak. Doinua ere ez zuen hautatu hain dotore eta gustagarria, baina bertso eder-ederrak direnik ezin uka. Arrantzale zahar elbarriaren nahi eta ezinari itsasminez beteriko kanta. Ez dakit zergatik, baina entzule asko elkarri begira jarri ziren, bertso haien mezua behar bezala jaso ezinik edo... Oinak silaba batekoak nahiz bikoak daitezenean gerta daiteke horrelakorik edo eta bertsoaren ulermenerako funtsezko den hitzen bat publikoak jaso ez dezanen. Gartzelako bigarren bertsoaren ondoren jendea erdi mutu geratu zen; Everest-eko «armin», «erkin» etab. ere, zenbaitentzat,



gaueko elurraren hotsa bezala izan ziren. Euskara eta euskalkiak ikasi beharra nabarmen somatzen zen Xalbadorren garaian eta oraindik ere bada-go hor zer ikasirik...

Jon Enbeitak, saio guztietan dotore ihardun ondoren, bakarreko gaietan, beti bezala, bere goi-maila erakutsi zuen doinu berri eta zailtasun handikoan bederatzi puntuko bertso bikainak taiutuz. Txapelketa honetan bederatzi puntukoetan egitera ausartu ziren bakarrak Muxikako bi bertsolariak izan ziren. Gainerakoak 8, 7, eta 6 puntukoetara jo zuten.

Eguzkitzek eta Egañak bertso zoragarriak moldatu zituzten zenbait unetan. Egañak goizean puntua emanda eta bakarreko gaietan zalantza edo estropuzu txiki batzu izan zituen. Hala eta guzti ere arranoaren bertsoak bikainak izan ziren. Jakina, epaileek bertsoen ederra soilik ez dute kontutan hartzen, baita akatsak ere... Bi gazte hauen arteko elkarriketa bizi-bizia eta saltsa onekoa izan zen etxekoandre gazte eta igeltsariaren zereginetan. Dialektika eta umorea azpimarragarriak izan ziren, batez ere bere gonari begira, azulejoak gaizki jartzen ari zela Eguzkitzek egotzi zionean. Bakarreko gaia sei puntukoan egin zuen Eguzkitzek. Semea erdi umezurtz eta andrea erdi alargun zuela adieraziz kantatu zuena iruditu zitzaidan politena. Egañak eta Lazkanok ogi zahar eta berriaren gaiari itxuraz zeukan baino ore hobea atera zioten. Lazkanok gai polita, ia hunkigarria, zuen bakarreko gairako eta erantzun ere egoki egin zuen; burutu zituen zazpi puntuko bertso hauetatik lehenengoa eta bigarrena benetan politak eta hari berekoak.




Mendizabalen saioetatik, bakarreko gaian zortzi puntukoan egindako txakurkumetxoena azpimarratuko nuke. Oso bertso finak, sentimenduzkoak eta hari-harira zetozenak. Enbeitarekin ere dotore aritu zen feriatik etxeratzera.

I. Muruak une onak eta motelaldiak izan zituen. Hondartzan gaztelua egin eta olatu-brastada batek hondatu zion haurren gaian izan zuen, behar bada, unerik hoberena, lehenengoa fina eta gozoa da. Bigarrenen akats txikiak («ardurik»). Hirugarrenari dotore ekin zion, baina erdi aldean estropuzu txiki bat izan zuen eta loturarik eza nabari da... Lantegirako langile gaztea ala heldua hartzeko auzian ederki ihardun zuen. Itsasuntziarenean, ordea, beherantz amildu ziren Lazkano eta biak.

Sebastian Lizasok txapela jantzi zuenean baino bertsogintza landuago eta txukunagoa erakutsi du oraingoan. Horrekin ia esanik dago guztia. Beti izan da erraztasun handiko bertsolaria, eztabaidan edo teman oldarkorra, baina belodromoa txaloka eta borborka jartzeko adinako bertso distiratsurik orain arte ez genion


entzun. Orain egitura luzeko bertsoetara ere egoki moldatzen dela frogatu du. Txapela jantzi zuenetik maisu bihurtu zaigu azpeitiarra. Honen saioetatik Jon Lopategirekin burututako biak (ama-alabena eta gartzelan sartu zuten lapurrarena) azpimarratuko nituzke. Gartzelako gaian oso gora jo zuen eta entzulegoak hala ulertu zuen. Hauetatik egituraz eta mamiz hirugarrena zen hoberena. Ideiei dago kienez, lehenengoa hautatuko nuke, ordea; honek adierazten bait du belaunez belaun zetorkion itsasoarekiko lotura. Baina doinuarekin edo, arazoak izan zituen dirudie-nez, ondorengo biak zortzi puntukoak eta hau zazpikoa bait da; bertso honen azken puntuan etena ez du ongi ebakitzen.



Banakako saioetako bertso hautatuak

Irakurleari bi ohartxo egin beharrean naiz bertso hautatuak ezarri aurretik:

- Hautaketa hotz-hotzik eta huts-hutsik ene eritziaren arabera eginga dago.
- Binaka kantatutako bertso ederrik izan da txapelketa honetan, baina hauek testuinguruan kokatu beharra dago eta bertsolari baten bertsoa izan daiteke bikaina eta bestearena, agian, ez hain ona. Binakako bertso onak soilik jartzea, berezko testuingurutik ateratzea litzateke. Beraz, banakako bi saioetako onenak hautatu ditut.



M. Mendizabal

(Nagusiak zortzi txakurkumetxoetarik bat bakarra bizirik us-
tea erabaki du)

Txakurkumeok gaude
triste eta umil
gure barru gaixoa
ez dago trankil;
bizitzeko sortu da
hainbeste maratil.
Nagusia, aditu!
ez bait nago isil
eskea badabil
guregandik hurbil,
bihotza da pil-pil;
saldu gaitzazu haina
ez gaitzazu hil (*bis*).

I. Murua

(Haurrak gaztelutxo bat egin du hondartzan eta olatuak desegin)

Eguraldia argi ta bero
eguzkiaren jaiotza,
nik hondartzara iritsi nahita
alai-alai nun bihotza;
gaztelutxo bat egina nuen,
hondar eta txirlaz osa,
neretzako aproposa (*bis*).
Uraren kulpaz negarrez nago
lehen nengoena arrosa;
zuk zer dala ta kendu didazu
nere bihotzeko poza?

X. Eguzkitze

(Semetxo bat du eta lanetik etxeratzen deneko haurra lotanda)

Emaztea ta ni egin ginan,
zorionez, oso lagun;
bera ari da, baina nik ezin
umea hezitzen jardun.
«Horrela ezin segi liteke»
pentsatzen dut gau ta egun,
ea zer asmatzen degun (*bis*).
Semea daukat erdi umezurtz,
andrea erdi alargun...
behar dan dana aldatuko det
alkar maitatu dezagun.

S. Lizaso

(Zaharren egoitza baten arduradun izan ondoren, bertara jotzen du zahartzaroan)

Zakarraldiak izango nitun
inor zertako engaina,
baina ahal bada beti izan naiz
umila eta apaina;
aitona-amonei neuk hartzen nien
neurria edo tamaina
maitasunez hartuz gaina (*bis*).
Hala ta guztiz pozikan nago,
zahartu egin naiz baina,
maitasunakin jasotzen badet
maitasunaren ordaina.

I. Lazkano

(Emaztegaiaren bihotza marraztu zuen basoko haritz enborean; alargundu ondoren, haritz horren ondora doa)

Ez dut damurik gazte denboran
pausu goxoak emana,
horixe bait da mundu honetan
oso berezko dan lana;
hortikan datoz haurtxo gozoak
hortik aita eta ama,
bikote batek ezin lezake
bide hoberikan asma;
baina galdua daukat oraingoz
ordun egin nuen plana;
gauz bat badaukat oraindik ere
sekulan ahazten ez dana:
haritz zahar horren azpian gozo
nik hartu nuen laztana.

J. Enbeita

(Euskal Herrian hainbeste urtetan lan egin ondoren, jubilatutik bere herrira doa)

Munduko ilunabarra,
adinaren zoritxarra,
ahultzen dijoa indarra
baina ez barneko garra.
Etorri nintzen herri hontara,
berau zen nire izarra;
bertan utzi dut izerdi eta
zorianaren aparra,
bertan uzten dut nire irria
ta bertan nire negarra.
Berriro nere jaiotetxera
daukat itzuli beharra,
baina ez zaitut inoiz ahaztuko
ene Euskal Herri Zaharra (*bis*).

Kanta izan dizut sarri
hamaika abesti barri,
baina gaurkoan naiz larri
joatea da mingarri.
Zu ikusteko ardurak nindun
garai haretan ekarri;
ezagututa gure bihotzak
oratu ziren elkarri;
ordurik hona ni izan nauzu
hau esateko egarri:
ni banijoa nere etxera,
adinez bait naiz elbarri,
baina zu beti izango zara
nire bigarren aberri (*bis*).

A. Egafña

(Arrano zauritua; gizon batek sendatu eta airetik hegan doa)

Garai batean mendi puntetan
egiten nun hegan lasai,
zoritxarreko eskopeta bat
han zegoen noiz jetsiko zai;
bide ertzean aurkitu niñun
neronen odoletan blai.
Pitín bat sentitzeko gai
nola genuen nolanañi (*bis*).
nik uste nuen pertsona denak
genitula gure etsai;
gizon gaiztoak badira baina
jator askoak ere bai.

Pentsatzen nuen bide ertzean
geldituko naiz hilotza
hego handitan odol gorria
mokoa zerbait berdotza
eta gainera une haietan
nagusitu zen izotza;
hura dardara ta hotza,
txori gaixoen marrantza! (*bis*).
Gizon jator bat errukitu zan
laguntzeko ez zen lotsa,
beste guztiak behar zenuten
gizon horrek dun bihotza.

Bere etxean eduki niñun
pixkat sendatzen jardunik;
bihotz gabeak ez du hartuko
holako eginkizunik,
munduan ez da falta pertsona
aldrebes eta lizunik.
Lehenoz ez neukan kemenik
ta orain nago lerdunik (*bis*).
Pertsona horri inortxok eman
ez zion honen ordenik,
hutsaren truke egin zendunez
asko maitatzen zaitut nik.

J. Lopategi

(Bi lagun Everest-era abiatu eta bidean laguna amiltzen zaio)

| | |
|--|---|
| Mundu hontako justizia ere hain gertatzen da urria, gutxien uste dugun garaian bait dator gaitz bihurria; munduan dagon goi altuenari hartu nahiean neurria hona bikote oso zalea martxa haundian jarria, baina berela buka zitzaigun ilusioen argia. Hau da ene aldarria minbera eta larria, lagunarekin biok genduen Everest-en egarria; azken boladan hola galtzea ez al da negargarria? | Ondo betea jarri genuen jan-edaritan saskia, subentziotan hornitu ere ibilera garestia; bion bihotzak sentitzen zuen esperantzaren izpia, Everest gaina ia eskuan ibilera amestia; baina ospina agertu zen ta aienatu zen ezta, hargatik nire abestia sentimendutan bustia; Everest punta gendun ametsa hura gendu eguzkia, baina laguna eroritzean itzali zaigu guztia. |
|--|---|

Jarraitu nahita jarraitu ezin
bihotza jarri zait armin,
zeinek pentsatu gure irteeran
guretzat hainbeste lorrin;
galdu ditugu lagunarekin
gure hainbat amets gordin;
hala ta guztiz Everest berriz
jarri zaigu argi urdin;
ez ninteke ni bide erdietan
gelditu inola erkin,
ez naiz sentitzen atsegin
baina segitu nahi berdin,
punta hortara ailegatzeko
saiatuko naiz behinepin
lagunaren ta nere izena
berrantxe idatzi dadin.

(Gartzelako gaia: Zahartzaroan ohean elbarri den arrantzalca-
rena)

M. Mendizabal

Ohean nago eta
horra hor aitortza:
bizi hauxe gehiago
ezin dut goza;
arrantzale izan naiz,
langintza zorrotza;
ohean gelditzea
da benetan motza;
urruti da poza,
triste dut bihotza,
penaren morrontza;
negarrez entzuten dut
olatu-hotsa (*bis*).

Itsasoko bizitza
hain da arlotea;
berak eskaini zidan
bizi-atea.
Baina orain ezin dut,
neuretzat kaltea,
penagarri da, noski,
hola egotea!
bere da epea,
buka da nekea
arriskuz betea;
agur nahi dezun arte,
itsas maitea (*bis*).

X. Eguzkitxe

Hainbat urtetan probatua dut
itsasoaren morrontza
sarri gozatuz, sarri sufrituz
bere bero eta hotza;
baina gaztea nuen gorputza
ohean erdi hilotza...
Behintzat eskerrak entzun nezaken
hainbat olaturen hotsa!
hala ez balitz nik honez gero
geldirik nuke bihotza (*bis*).

Oso gazterik eman nuen nik
itsasorako pausoa,
aitortzen dut ez dudala izan
bizimodu erosoia.
Zuri begira naiz, zorionez,
neure alabak jasoa;
nahiz nik hainbeste sufritu,
mila esker zuri, itsasoa;
ni ezer ez naiz, zu izan zera
nere bizitza osoa (*bis*).

A. Egaña

Leiho ertzetik entzun dezaker
itsasoaren indarra,
olatu pila nola lehertzen dan
braust eta braust barra-barra;
pentsatze hutsak begietara
ekartzen didan negarra,
momentu triste xamarra,
eskegi nuen txamarra (*bis*).
Ni bezalako gizon batentzat
ez ote da zoritxarra,
itsasoa hain hurbil izanda
ohean egon beharra.

Sentimenduak loratzen zaizkit
itsasuntzien irteran
arraiz beteta datozenean
bapore hoién sarreran;
ez dakit ziur nere barruko
grina normala ote dan...
ez naiz aurkitzen primeran,
bertan nahiago aukeran (*bis*).
Hementxe nago itsas zabala
begiz ikusteko eran;
zenbat gorroto nuen lehen eta
orain zenbat maite dedan!

J. Enbeita

Eziarria dut mingorza,
hau atsekabe zorrotza!
heldu zen gaiso arrotza,
esaten ere naiz lotsa;
hainbat urtean bizia truke
itsaso hortan morrontza.
Gaur bi begiak lausotuak ta
dardaraz daukat okotza;
ezin dut kanta, ezin dut esan
lehertua baiñ dut abotsa.
Leiho ertzetik entzun zaitudan
itsas olatuen hotsa,
etorri zaitetz laztan dezazun
elbarri honen bihotza.

Zure gatzaren aparra,
zure olatu indarra,
zure kresalaren garra
daukat aitortu behiarra.
Zenbat urtetan zure altzotan
itsaso eta izarra!
Zure hotsean gaur etorri zait
gazte aroko izparra;
zure altzoan laztandu nuen
Hegoa eta Iparra;
mugitu ere ezin naiz egin,
hau da nire zoritxarra;
zure altzoan nahi dut atsedean,
hauxe dut amets bakarra.

J. Lopategi

Itsasora nik sarri
egin nuen jira,
begira zer dudan gaur
saritzat segira!
Neure ezin honetan
hau da ikusmira!
Begiratu nahiean
itsaso argira
leihotik olatuei
jarri naiz begira (*bis*).
hotsak entzuten ditut,
baina urruti dira.

Lehenago beti arrantzan
gogoz egun ta gau,
hortan zaindu nituen
zenbait euskal arau
eta zaletasunak
oraindik badirau,
baina erreallitatez
gizaixo honek barau...
Orain aditutzean
olatuen hots hau (*bis*).
burutik oinetara
dardaran jartzen nau.

Ezagutu nituen
hainbat itsas bazter
denen buru bezala
eskuin eta ezker;
orain nahi nuke baina
ez nezake ezer,
zaletasunez ezin
hil artean azper.
Nire hiletetara
bazentozte laster (*bis*).
ez errezatu «Beltzari»
hiru Pater Noster.



Aita zana ere marinela zan
ta bizioa ezarri,
lehenak eta orainak nola
dakarren hainbat lokarri;
gaztetatikan sentitzen nintzen
itsasoaren egarri;
untzi batetan lehen ere musu
eman genion elkarri.
Hura joan zan eta geroztik
nabil estu eta larri;
neretzat ere urteak pasa,
ohean nago elbarri;
olatu-hots horiek dirade
neretzako bizigarri.

Hamaika ordu urean pasa
eguzkitik ilargira,
gauean ere polita bait da
itsasoaren distira;
ez dakienak zail da jakiten
han ohi degun ikusmira;
ni hemen baina nere lagunak
oraindik han ari dira;
aitona zahartu egonagatik
batere ez zait kupira,
oroitzutzen zait lehen egindako
horrenbeste jira-bira;
egunen baten irtetzen banaiz
ni etxeko atarira
azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari begira.

*Luis Baratazarra
Markina, 1990-Urtarrilaren 27a*